

IRURTZUNGO, IMOZKO ETA ITZA ZENDEAKO UDALEN ARTEKO AKORDIOA IRURTZUNGO UDAL MUSIKA ESKOLA KUDEATZEKO ETA FINANTZATZEKO

Irurtzunen, 2010eko irailaren 20an

Bildurik

Batetik, Juan José Iriarte Vitoria Jn., Irurtzungo Udaleko alkate-udalburua, 18197505-C NAN zenbakiduna, tokiko entitatearen izenean eta hura ordezkatzuz.

Bestetik, Joaquín Garbisu Orayen Jn., Imozko Udaleko alkate-udalburua 15728494J NAN zenbakiduna, tokiko entitatearen izenean eta hura ordezkatzuz.

Aurrekariak

Irurtzungo Musika Udal Eskolak Atakondoa Ikastetxea eskolatzat duten udalerrietako ikasleak hartzen ditu.

Musika-heziketa hezkuntza-alderdia zabaltzen duen jarduera denez, behean sinatzen dugun Udalok egokitzat jo dugu hitzarmen bat sinatzea egoera hori arautzeko.

Hitzarmenaren helburuak

Auzokideen artean musika-diziplinen ikaskuntza sustatzea, bereziki Irurtzungo, Imozko eta Itza Zendeako Udaletako haur eta gazteen artean, bai eta etorkizunean hitzarmen honi atxikitzen ahal zaizkion beste udalerrri batzuetakoen artean ere.

Kultura musikalaren ezagutza eta zabalkundea sustatzea, gure herrietako gizartean eta kulturaren eragin onuragarria izan dezan.

Inplikaturako guztien artean konpromisoa hartzea, Musika Eskolaren Hezkuntza eta Pedagogia arloko Proiektuaren kalitatea eta egonkortasuna bermatzeko eta elkarlanean aritzeko.

Musika-heziketak eta Musika Eskola baldintza berdinetan kudeatzeak sortzen dituzten eskubideak eta betebeharrak hitzarmen hau sinatu duten entitateen artean partekatzea, eta eskubideak nahiz betebeharrak betetzetik heldu diren zailtasunak denon artean konpontzea.

Udal horietako ikasleek ordaindu beharreko tasak arautu eta berdintzea 2011-2012 ikasturterako, atxikia dagoen Eranskinarekin bat.

Xedapenak

Lehena:

Irurtzongo Udala San Migel kalea z/g helbidean kokaturiko Musika Eskolaren titularra da eta irakaskuntzaren arloan eskumenak ditu, Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 25.2 n eta m artikulua espresuki ezarritakoaren arabera.

Bigarrena:

Irurtzongo, Imozko eta Itza Zendeako ikasleek Musika Eskolan parte hartuko dute, tratu-berdintasuneko irizpide batzuekin bat matrikularen zenbatekoari eta onarpen lehentasunari dagokienez, bai eta Irurtzongo Udal Musika Eskolaren barne kudeaketarako organoetan parte hartzeari dagokionez ere.

Hirugarrena:

Irurtzongo Udalak bezala, Imozko eta Itza Zendeako Udalek ere eskubidea izanen dute aipatu zentroko Eskolako Kontseiluan ordezkari izateko, bai hizpidea eta botoa izateko ere. Era berean, egokitzen duten informazio guztia jasoko dute Musika Eskolaren kudeaketaz eta gobernuaz. Irurtzongo Udalak garaiz eta behar bezala eman beharko ditu beste bi entitateek honako arlo hauei buruz eskatzen dituzten datuak: pedagogia-proiektua, eskolaren barne funtzionamendua, zenbat matrikula urtean, gastu kontzeptuak, etab. Halaber, ikasleak matrikulatzeko kanpainan lagunduko dute, Eskolari buruzko propaganda beren udalerrietan eginez.

Laugarrena:

Musika Eskolako ikasleek musika-emanaldiak egin ditzatela eskatzen ahalko dute Imozko eta Itza Zendeako Udalek; zenbat emanaldi izanen diren proportzionalki zehaztu beharko da, Zentroaren posibilitateekin bat.

Bosgarrena:

Irurtzongo Udal Musika Eskolaren urteko defizita finantzatzeko irizpide nagusia hauxe izanen da: Udal bakoitzeko ikasle kopurua eta bakoitzaren irakasgaiak.

Hona hemen zer kontzeptu sartuta dauden gastuetan:

- Irakasleak eta administrariak, ikasgelak mantendu eta konpontzea, material teknikoa eta hornigaiak.

Hona hemen diru-sarrerak:

- Nafarroako Gobernuaren diru-laguntza, urtean urtekoa.
- Matrikulak.

Defizita gastuen eta diru-sarreraren arteko kenketaren emaitza izanen da. Honela banatuko da:

- Udal bakoitzeko ikasle bakoitzaren arabera, dagozkien irakasgaiekin.

Imozko eta Itza Zendeako Udalek defizitaren zati proportzionala ordainduko diote Irurtzongo Udalari, ikasturtea bukatzean (iraila) eta hurrengoa hasi baino lehen.

Seigarrena:

Hitzarmenak urtebeterako indarra izanen du sinatzen denetik aurrera eta urtero luzatzen ahalko da baldintza berdinetan, baldin eta alde batek hilabete lehenago hitzarmena Irurtzongo Udalean salatzeko erabakia hartzen ez duen bitartean.

Zazpigarrena:

Irurtzongo Udalak beste udalerrri interesatu batzuei zabaltzen ahalko die hitzarmena sinatzeko aukera, betiere hartan xedatutako baldintzak errespetatuta.

Eta halaxe jasota geldi dadin, agertutakoek agiri honen bi ale sinatu dituzte, ados daudela eta beteko dutela adierazteko.